

## Sorgintxulo auzoko obrak Eguberrietarako bukatu nahi dituzte

■ Eguraldi ona behar da auzoa asfaltatzeko ■ Bizilagunak nekatuta daude ekainaz gero auzoa hankaz gora dagoela-eta.



Sorgintxuloko plaza obretan dago ekainaz geroztik.

EKAINEAN hasi ziren Sorgintxulo auzoko lanak, eta urtearekin batera bukatzeko asmotan dira; agindutako epeetan ibiliz gero, behintzat. Uren kanalizazioa, ur zikinena, telefonoa pasatzeko tuberiak... lurpeko lan guztia eginga dago. Orain, zorua falta da; baina galipota botatzeko eguraldiak lagundu behar, eta ez dago horretarako.

**AUZOKOEK JARRAITU** Sorgintxuloko auzo elkarteak gain-gainetik jarraitu ditu auzoak berritzeko lanak. Azken aldi hankaz gora egon omen da auzoa: arketak zabalik, zaborra nonahi, baldosa batzuk oker... Auzotarrek azkenean, obrako eta udaleko arduradunekin bilera egin eta hala konpondu dute arazoa.

Orain, gustora daude, gauzak nola dauden ikusita.

**BUKAERAKO FESTA** Auzoa berri eta obrak bukatzean, inaugurazio festa egitekotan dira Sorgintxulon. Ez digute gehiago aurreratu, baina, dirua ateratzeko errifak saltzen ari dira. Suertea duenak saski ederra eramango du. □

### UDAL AURREKONTUA

## Udal langileen eta nekazarien txanda gaur

■ Bilera orduak: udal langileek 19:00etan eta nekazariak 21:00etan ■ Hurrena batzarra egingo da.



Kirol eta euskarako bilera izan zen asteazkenean.

UDAL aurrekontua osatzeko udalak martxan jarritako prozesoa azken fasean sartuko da. Gaur, udal langile eta nekazariekin bildu eta taldekako eztabaida hemen bukatuko da. Hurrena batzarra egingo da eta azken erabakia plenoak izango du.

### 60 PROIEKTU

Atsegindegiko urbanizazioa, Aitor zinea, hilerrirako lurra erostea, albergea Arriatsun, trenbidepeko pasabideak... eta beste 50 proiektu gehiago atera dira. Orain, horietatik batzuk aukeratu dira batzarrean eztabaidatzeko. □

### LAUTERDIKO PELOTA TXAPELKETA

## Esنال - Galarza V, bihar

■ Galarzari irabazita ere, milagroa da Esنال finalean sartzea ■ Aurretik, Legorburu-Bazeta//Oiaga-Oregi

IÑAKI Esnalek herriko zale-tuen aurrean jokako du Lauterdiko azken partidua. Orain arteko biak galdu egin ditu

(22-12, 22-10). Gaur irabaziko balu eta Zabalak galdu, orduan tanteoak erabakiko luke. Baita, tanteoaren ere oso zaila du.

### EREÑOTZU AUZOA

## Gabonetako kantu taldeak gaur du bilera

■ Kantak aukeratu eta gauzak lotzeko bilduko dira ■ Eskola zaharrean, 20:30etan.

### ASTEBURUKO ZINEA

## El Profesor Chiflado 2 (la familia Klamp)

■ Gaur 10:30etan ■ Larunbatean 17:00, 19:30 eta 22:30etan ■ Igandean 17:00 eta 19:30etan.

### ANDRA MARI MIRARIGILEARI HIRURRENA

## Errosarioa arratsaldeko 18:45etan; meza 19:00etan.

■ Larunbat, igande eta astelehenean izango dira Juan Bataiatzailearen Parrokian ■ Hizlaria: Imanol Aldaregia.



mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI



ETXE ONENAK, S.A.

### GARAJE ITXIAK 'OBLATOS'ETAN SALGAI

Informatu eta saldu:  
☎ 943 33.22.37

### Lizeaga taberna

Biktor Hugo 5  
Tel 943 333082  
HERNANI



### Allianz

ASEGURUAK  
Agustin Ezponda  
AGENTZIA  
Tel.: 943 557 326  
656 735 109



### MUEBLES HERNANI

Esposizio aldaketagatik,  
**Beherapen bereziak.**

HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI

## AEK-REN AURKAKO AUTO JUDIZIALA

# AEK: "Asmo bakarra AEK eta euskara erakustea kriminalizatzea da"

■ Ondasunak enbargatu eta diru kontuak blokeatu dizkiote ■ Juan Mari Larrarte hernaniarra da Garzón epailearen aurrean deklaratu beharko duen 19tako bat



J.M. Larrarte, Gipuzkoako AEKko arduraduna zenean. (Argia)

GARZON epailearen *Auto-ari* erantzuteko AEK-k prentsaurrekoa eman zuen atzo Bilbon: "AEK-k ez du inolako harremanik ez ETArekin, ez Jarrairekin (...)" esan du garbi. Bestalde, gezurra dela dio 1.150 milioietako iruzurra egin duenik, eta auditoriak jartzen ditu lekuko.

### ETA-RI LAGUNTZEA

Juan Mari Larrarte hernaniarraz gain, beste 18 lagunek joan beharko dute Madrilera, Garzónen aurrean deklaratzera. Joan Mari Gipuzkoako arduradun izan zen AEKn eta bi akusazio daude bere kontra: ETARI laguntzea eta Gizarte Segurantzari iruzurra egitea. Datorren ostegunean joan beharko du.

Gaur, Hernaniko AEK Donostian bilduko da Gipuzkoakoekin, zer egin ikusteko. □

## ■ ESKOLARTEKO KIROLA

# Klubek eta ikastetxeek elkarlanerako konbenioa sinatu dute

ESKOLARTEKO kirola elkarrekin antolatzeko sinatu zuten konbenioa klub eta ikastetxeek, Eli Igariz buru zutela. Sinatu zutenak: Urumea, Elizatxo, Langile eta Inmaculada, Hernaniko Kirol Elkarte, Club Deportibo Hernani, Errugbi Elkarte eta Eskubaloit taldea. □



Ikastetxe eta klubetako arduradunak konbenioa sinatzen.

## ESKOLARTEKO KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

### LARUNBATA

#### ■ ESKUBALOA

*Mutil alebinak:* (Urnietan) Udarregi B - Urumea  
*Mutil alebinak:* (Urnietan) Presentación- Elizatxo B  
*Benjaminak:* (11:15etan Kirolda.) Elizatxo A - Langile B  
*Benjaminak:* (12:00etan Kirolda.) Langile B-Elizatxo b  
*Benjaminak:* (12:45etan Kirolda.) Urumea- Langile A  
**■ ERRUGBIA**  
*Benjaminak:* (10:00etan Kirolda.) Langile A-Langile B  
*Benjaminak:*

(10:45etan Kirolda.) Urumea - Elizatxo A

#### ■ BOLEIBOLA

*Neska kadeteak:* (12:00etan Kirolda.) Langile-Landaberri  
*Neska kadeteak:* (Donostian) Sto Tomas-Inmaculada  
*Neska infantilak:* (12:00etan Kirolda.) Urumea-Erniobeia  
*Neska infantilak:* (Andoainin) Andoaingo I-Langile  
*Neska alebinak:* (12:00etan Kirolda.) Langile B- Urumea  
*Neska alebinak:* (12:30etan Kirolda.) Elizatxo A-Elizatxo B

#### ■ FUTBOLA

*Mutil infantilak:* (09:00etan Zubipen) Urumea-Alkartasuna  
*Mutil infantilak:* (Alegin) Aralar-Langile

#### ■ SASKIBALOA

*Alebinak:* (Donostian.) Altza-Inmaculada  
*Alebinak:* (Donostian.) Jesuitas A-Langile B  
*Alebinak:* (Donostian.) S. Luis Lasalle-Langile A

#### ■ PELOTA

*Infantilak:* (10:40etan Kirolda.) Elizatxo 3-Elizatxo 1  
*Infantilak:* (11:00etan Kirolda.)

Urumea 1-Elizatxo 2

*Infantilak:* (11:20etan Kirolda.)

Langile 1-Langile 2

*Infantilak:* (11:40etan Kirolda.)

Elizatxo 1-Langile 2

*Infantilak:* (12:00etan Kirolda.)

Langile 1 - Langile 3

*Alebinak:* (09:20etan Kirolda.)

Elizatxo 1-Elizatxo 3

*Alebinak:* (9:40etan Kirolda.)

Urumea 1-Langile 3

*Alebinak:* (10:00etan Kirolda.)

Langile 1-Langile 4

*Alebinak:* (10:20etan Kirolda.)

Elizatxo 2-Urumea 2

## ■ HITZ BITAN



ETBko kamarak Kronikako bulegoan irudiak grabatzen.

### ✓ HERNANIKO KRONIKA

#### ETB-k erreportaia egin du Kronikari buruz.

*Lengua viva* programarako erreportaia egiten izan ziren atzo ETB-2ko kamarak Kronikan. Proiektua martxan jarri zenean egin zuten bat, eta bost hilabete beranduago bestea "euskarazko herri prentsan egiten ari den bidea interesantea delako". Aldatu ezean, abenduaren 16 botako dute, goizeko 11etan.

### ✓ 49KO KINTOAK

#### Abenduaren 10ean aurten 49 kinto bazkaria.

Oianume jatetxean (Urnietako gasolinera frentean, sarrera) egingo dute aurtengo bazkaria, arratsaldeko ordubietan. Aurretik, 12:45ean, hildako kintoen aldeko meza izango da Urnietako Salesianoetako kapilan. Bazkaltzera joateko aurretik apuntatu behar da. Joatekoa denak deitu dezala telefono hauetara: 943-551371 (*Agustinetaz galdetu*) edo 943-554845 (*Sevetaz*). □

### ❖ ERAKUSKETA

*Alberto Elosegiren argazkiak.*

Txema tabernan.

*Vietnam-i buruzko argazki erakusketa*

Zumardi tabernan.

*Aratxa Samsoren marrazki erakusketa*

18:00-20:00.

### ❖ ZINEA

*El Profesor Chiflado*

Biterin, 22:30etan.

Frayen erakustetako argazki bat.



## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093  
▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
▶ DYA: 943 464622  
▶ Autobusak: 943 556662  
▶ Anbulatorioa: 943 557750

### ☎ FARMAZIAK

▶ Eguez: Correa Antziola, 44 ☎ 943 336022  
▶ Gauez: Gorospe Andoain, Rikardo Arregi, 12 ☎ 943 592415

## IRAGARKI MERKEAK

▶ Neska bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.

☎ 943.557190



Laguntzaile:

**Hernaniko Udala**

Laguntzaile:



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak